

EUSKALERIKO BERRIAK



Donostia'r antzeslariak aherarik anaikořena egin zien donibandarřak

Jauregi befi'k zion: emengo ta ango euskaldunen batasuna Euskalafiarentzat ezin ohea da ta berori sendotzen alegindu bear degu. Zumayar bat ito Asturias'ko uretan. Litxaferuak lan dagite

NESKA ZAR

Donosti'ko Eusko Etxea'ko antzeslariak Donibane Lointzun'en izan dira «Neska Zar» Alzaga jaunaren antzerkia botatzen. «Gure Etxea» antzokian izan zan jala ta jendea ugari bildu zan. Tarteetan Olazola'tar Gabirel abeslari bikainak eusko-abesti ederak eman zituan eta ao xabalk egon ziran doniandarrak bai antzerkia ikusten bai abestiak entzuten. Txalo ederrak jo zituzten. Itzalditxo bat ere egin zuan Erhardorena jaunak emengo euskaldunen izenean angoak agurtuaz, ta Jauregiberri jaunak apal-ondoa itzaldia gogoratuaz, erantzun zuan emengo eta ango euskaldunen batasuna Euskalafiarentzat ezin ohea dala ta berori sendotzen alegindu bear degula angoak eta emengoak.

BERRI TXARRA

Zumaya'tarrak berri txarra izan dute juañ dan egunean. Asturias aldean «Peña Castillo» itxas-ontzia galdu da ta bertako buru zan Irureta'tar Jose Antonio zumayatar jatorra ere bai. Errian naigabe aundia sortu du berri txar orrek. 40 urte zituan eta alarguna eta bi seme uzten ditu. Goyan bego Jose Antonio gizarrakoa.

OTZA

Emen ere otz aundiak egin ditu joan dan aste guztian. Elurketa aundirik ez du egin goi aldean izan ezik baño goletako otza ekartzen du ederki, nagusi ibilli dan alze mifiak beetara ere. Supasterra atsegin duk motellak orlako egunetan!

LAPURRAK

Zarautz'ko «Villamunda» jauregian lapurrak izan omen ziran joan dan astelenean. Guridi'tar Justo'k dauka jauregiaren ardura; berak eman die Guardia Civillak gertaera orren berri. Baztar guztiak goiko bera utzi omen zituzten baño ezer eraman ez. Azkeneko berrogei urte auetan ez omen da jauregian ifior bizi izan. Balloko gauzak erabili omen zituzten eskuarteetan. Eztatuzten nonbait aintzat artuko ta orregatik etziztuzten eramango. Jauregia Villapadierna condasarena da. —Olartzunen tximist-indarraren alanbreak ostu dituzte Otzandolamendian. Mikeleteak lapurrak lanean ari zizala, bertan arrapatu zituzten eta 34 kilo alanbre kenduak zeuzkaten. Electra Ramontxu tximist-indar ola da jabea. Lapurrak, Santiago Bolivar eta Franzisko Mora. Orlakoak bide okerretik zuzene-

ra gorosti-makil batek sartzen omen ditu ongina.

—Errera'n Ibarbi'tar Manuelen ollotegitik bost ollasko aundi eta bi untxi lapurtu zituan Pasai'ko Trin txerpe'n bizi dan prantses-euskaldun batek.

Goizko ordubata ta erdian panparroi asko etxera zijoala arrapatu zuten Altza'ko gau-amabiak.

Espetxean egun batzuetan egon da oster lanean asia izan bear du lapur-ollo-salda-zaleak.

Egurra, egurra olakoak. —Pasai San Pedro'n bi tokitan; Errera'n beste bi tokitan eta beste toki geiagotan ere litzarkerian ibiliak izan bear dute.

GETARI'KO GATZAGA'TAR ZIRIAKOREN ERIOTZA DALA TA...

Asteartean izan zan Donosti'n Getari'n joan dan urteko otsailaren 15'an izan zan eriotzaren gora berak aztertzeko auzia.

Eriotzaren errua Idiakez'tar Franzisko'ri egotzi zitoten.

Asteartean arratsaldeko iruretan asi zan auzia eta asteazken goizeko lauretan oraindik amaitu gabea zan.

Gertatu zana gertatu zala, Franzisko gizarrajoari ederra erori zayo ederra.

21 urte 6 illabete ta 21 eguneko espetxea eman diote ta gafiera illakoaren sendiari 15.000 laurleko ordaindu bearra.

Ez du gizarrajoak erruki aundirik arkitu bere aurka daudenen artean.

Erriak ba du ifior errudun danean eta ez danean ezagutzeko sentzuna, ta oraingoan ere igarri dio Idiakez ez zala errudun. Baño ala ere ezer ez balio.

Mundu ontako okerrak zuzenduko dituna ba dago goien eta zuzentasuna an egingo dan uste onarekin bizi bearko degu, Beragan ustea ta itzaropena dauzkagunak.

Berak eman bezaio eramanpena, bearra ere izango du ta, Idiakez'tar Franzisko'ri.

AIZARNA

—Aspaldi onetan gaixorik arkitzen da Lizaso'tar Luisa. Ezenarro basetzeko etxeko andrea. Lenballen sendatu.

—Aurreko igandean iragarri ta zegoan bezela eusko jai ederra izan genuen. Zazpiretako mezan aberitzalea ugari bildu zan Mai Donera; amaretan meza nagusi ederra; aita Arrue'k itzaldi sutsu bat egin zuen. An ikusi genitun Zestua'ko ezpatadantzariak guzen aurrian.

Arratsaldean Eusko etxeko aretoan Donosti'tik etorri ziran izlariak: lenbizi emengo bazitide Errasti ospatsuak, ondoren Artetxe jaunak eta gero Sistiaga andereñoak eta azkenez, Ugartetxea jaunak, itzaldi bikain bikainenetakoak egifi zizkiguten. Bukatzeko «Basarri» eta «Zepari» bertsolari jatorrak txalo ugari joazi ziguten.

Baita Donosti'tik etorrita emen agurtu genuen U. B. B. lendakari dan Billar'tar Iñaki jaunak.

Batzuek mar-mar eta beste askok igora! mundu au onetxero onela jungo da.

TXIKI

Lengo astekoa berandutxo irital zitzaigun, «Txiki». T.

ALBIZTUR

GURE GOTZAI TXIT AGURGARRIAREN NAIA BETAZ

Goizko seiretan Gurutz bidea eta arratsaldeko lauretan Jaun agiria, Agurtza eta Jesus en Biotzaren Arrentzak esanaz, bcdcratziurrena daukagu gure Elizan.

Bilbao'ko urian cin ospe aundiz altxa berria duten Jesus'en Biotzaren irudi bikaina bota edo kentzeko, ango 24 kontzejal zoritxarrekok ala nai dutela-ta, Udalak artu duan erabaki ikaragarri eta lotsagarriarekin Jesus'en Biotz maitagarriari egin zalon txarkeri aundia al-degun ongiena ordaintzeko. eta erabaki ori betetzerik ez dedilla geratu arrentzeko dira, bigar, asteleanean bukatuko zalzikigun elizkizun oyek.

Jesus'en irudia. Kendu nai dutenak. Ez dira agintari On eta zuzenak. Oyek ikusten ditu Egin zitun Jaurak. Eta oaki zigortzen Gaizto nabarmenak.

INAUTERI IRU EGUNETAN Urteroko oitura ederrari jarrai-

tuaz iru egun oietan, Jaun agiria jarriko zaigu gure Elizan.

Iñauterietan gure Jaungoiko onari egiten zalzikion irainak al-degun otoitz bero ta egokienaz ordaintzera, irurren ortan Elizaratu gaitezen arren.

Iñauteriak askok ludi gaizto ontan. Igaro oi dituzte Moskorkerietan. Guk, ordea, euskaldun Zintzoen tankeran, Egun oyetan otol Dezagun Elizan.

GARIZUMAKO ITZAI DIAK

Gure Erretore jaun onbidetsuak urtero oi duan bezela, gafean ceñun Garizumaren lenengo best egu netarako ere, izlari bikain bat dakarki Eliz ontara. Aita Agirreolea, Jesuita agurgarria noski. Eta arratsaldeko itzaldiak, iruretan asiko dira.

Itzaldi oyek ongi. Entzunaz Elizan, Guztio onak izan Gindezke errian. Gorroto txarrik ifior! ba' du biotzean, kendu bearra dauka Sartzeko zeruan.

LUISTAR

Erri onetako sendagille izandako Errezola jaunak Jaungoikoak Bereganatu du. (G. B.)

Elezioak bai omen ditugu laster. ¡Au poza! Alde batera ez etortzeko obek dira bañan beste aldera ez da txarragua. Orain bai lan egin bear degula abertzaleak. Badator eguna, ta guztiyok lan guria ekartzen ¡Gora Euzkaid azkatuta oyu dakigula.

¿Zure izena, «Mirentxu»?—T.



Lastua ta sasiya ebakitzeo makinak.

Aleak itxikitzeo efotak

Udarbiya ebakitzeo makinak

Vda. de Juan Oria

Urbieta, 41, 43 eta 45 DONOSTIA

ANTZUOLA

¡Eup! Emen nalz ni berriz ere igande batzuek oporketan egin ondoren ARGIA izparringi jator onetan idazkirik agertu gabe.

Alde batetik, gogoa juañ zitzaidan idazteko, zergatik nere alegin guziakin beti bezela, lerrotxo batzuek bialdu euzkal-orri auetan ar gitartzeko eta agertu ez. ¡Arra-yea!

Bañon beste errietako nere lagun diran idazleak berri atsegintsuak ipifi dituzte orri auetan eta nereak palta.

Bada, zuzendari jaunari erregutzen diot bestienakin batera nereak jartzeko, eta idazteko motel-tasunagatik argiratu ezpalitu, azketsi.

BERGARA

Bergara'ko Euzko Batzokiko abertzaleak deituta erri ontako euzkotar antzergilleak Bergara

Kirikiño...

Ospatsua, geyenok ezagutzen zenuten noski edo bere aditza-ra geyenok badezute beintzat. Ba arrek, ainbeste euskal idazleri ain egoki larundu ziron euskaltzale jator arrek; «Euzkadi»-ko euskal orriaren zuzendari ainbeste urtez izan zanak auxe esaten zien idazleak: «Pilosopokeririk ez, berriak ugari». Auxe bera esaten dirutegu guk ere berriak ugari bialtzeko baño arren pilosopokeririk ez, leku gutxiegi dauka-gu-ta.

Juan ziran igazi zan igandean antzerki jai bat ematera.

JAIOTZA

Elortza'tar Pillipa mendigozta lien lendakari jaunaren emazteak semetxo bat izan du. Bataiatzean Jon Mirena euzkal izen polita jarri diote. Zorionak.

BATZARRA

Emengo Euzko Langilleak batzar nagusia izan zuten igaro gendun igandean.


GAXO

Oieraturik arkitzen da Asegin-laza'tar Kepa abertzale zintzoa. Albait laxterren sendatzea opa diot.

LUISTARRAK

Gaur, illaren laugarren igandea izanik, Luistarrok Jaun artzea izango degu. Ia bada guztio juañten alegintzen geran, aspaldian batzuek alperkeriz oitura eder oneri utzita daude ta. Ikusiko degu zer notin agertzen dan Jaungoikoaren aurrean.

AZROLE.



¿Begiko mina al daukazu?

Zoaz Vizenle Loidi jaunak

begi sendagilleagana

Avenida, 23, 2.ª DONOSTIA

teak, elizkizunen edertasunerako ta zuen animen onerako ta eman-kizun au ondo betetzeko beti gertu zaudetena; ba'dakit baita emen ipifi ditudan erabaki oiek ere ondo artuko dituztena; eta ez det uste zigorkada mingarri oiek ezartzeko ifiorxok ere bere utzikeriz beartuko gaituanik. Jaungoikoak dizutela guztio bere laguntza, eginkizun au bear bezain zintzo, maltekiro ta oso-oso betetzeko. Orize eskatzen diot dantonzat Berari, Nere onspena guztio emanaz.

Bujedo'tik 1933gn. Heltza'ren 8'an, Sendi Donearen jalañ, Gaztelz'ko Gotzai, MAITE'k. («Boletín oficial del Obispado de Vitoria'tik artu degu Gotzai-eskutzitza au.)

(1) Gorputz - jasotzeko otel-tzak oietxek dira: Antif. «Si iniquitates», Psalm. «De profundis», antif. «Exsultabunt» eta Psalm. «Miserere»; eta «Officium sepulturae»-koak, oietxek: «Non in pres», «Libera me Dne.» ain paradisum eta «Benedictus» bere antif. eta Otoitzarekin. Umetxoan illetaetan ez da ezer abstuko. «Rituale»-ko Psalmo ta Otoitzak esan baizik.

SARASOLA'TAR JUAN M. SEMERK

Arabi aunditeko arabel lantegiak

Gaur egunean izan litezken lankai edo makinarik berri ta egokienakin lan bikañak egiten dira Arbel (pizarra) onenatariko: trinko ta garbia, Paris'ko Ekola edo Laboratorietako zuzendariak beren azterketa - asirietan dioten bezela

Edozein lanetarakoak. Ludiko erri guzietarako
ISASONDO (GUIPUZKOA) Urrutizkiña, 18
Zuzenbidea ufutidazkiz: SARASOLA.—VILLAFRANCA DE ORIA

Irulea



Puntazko eun
Oyal zuri
Jostundegi

Kale Nagusia, 7 DONOSTIA Urtiz, 19026